ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 20a, ostirala • 134 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN, GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Zerbitzu Juridiko Administratiboa

Vitoria-Gasteizko etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko deialdiaren lehenengo ebazpena (2026-2027 ekitaldia)

Eskumenak eskuordetzeko 2024ko otsailaren 27ko erabakia aplikatuz, hauxe ebatzi zuen Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariak, 2026ko irailaren 23an:

Lehena. I. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei dirulaguntza bat ematea onartzea, eta eskatzaile bakoitzarentzat adierazitako zenbatekoan, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

1.1. Diruz laguntzekoak diren jarduketak gauzatzea eta justifikatzea, deialdiaren 10. atalean xedatutakoaren arabera.

1.2. Deialdiaren 12. atalean adierazitako betebeharrak betetzea.

Bigarrena. Deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatuta, ezestea erabaki honen II. eranskinean agertzen diren interesdunek Vitoria-Gasteizko etxebizitzako eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko egindako laguntza-eskariak, adierazitako arrazoietan oinarrituta (deialdia ekainaren 12ko ALHAOn, 67.zenbakian argitaratu zen).

Hirugarrena. Onartutako laguntzen ordainketa baimentzea, dagokion ebazpenaren bidez, behin betiko emakida formalizatzen denean, deialdiaren 9.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, deialdiaren 11.2. atalean xedatutakoaren ildotik, salbuespenez eta Espazio Publikoaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren berariazko ebazpenaren bidez, laguntza ordaintzea erabaki ahal da, baldin eta onuradunak eskatzen badu, lanen munta dela-eta komenigarria bada, eta aurreikusitako lanaren ehuneko 20 baino gehiago gauzatu bada, beti ere benetan egindako lanaren ziurtagiria aurkezturik eta aldez aurretik egiaztatu delarik, lanaren aurrekontu osoaren aldean erabakitako laguntzaren portzentaje berean. Edonola ere, eskatzaileak errealitatearekin bat datozen obra finantzatzeko plan bat eta ordainketa-egutegi bat aurkeztu beharko ditu.

Laugarrena. 29.719,77 euro gaitzea, 0410-1513-73310 kodeko konpromiso-kredituaren kargura (“21 Zabalguneari, etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko” izenekoa), ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako zenbatekoen arabera. Sozietate horrek laguntza horien zenbatekoa jasoko du, eta onuradunei ordainduko, deialdiaren 9., 10. eta 11. artikuluetan xedatutako prozedurari jarraiki.

Bosgarrena. Erabaki hau Vitoria-Gasteizko Udaleko Ogasun Sailari jakinaraztea, aipatutako hirugarren atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko jarduketak egiteko.

Seigarrena. Ebazpena udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea, eta ohartaraztea ezen haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke administrazio-egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko irailaren 23an

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkaria
BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO

NAN	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
33775812J	234,14
33765686F	234,14
13288455K	340,67
00274736R	340,67
18598937X	1.020,57
72560153Y	737,67
14686885M	1.276,98
16209253A	1.276,98
13281054A	2.089,61
16230906J	423,50
16234296E	423,50
16211251T	785,63
16205755R	785,63
16207346M	282,47
30570123H	2.534,59
58011434Y	1.592,39
Z1285026K	1.592,39
70230094P	424,44
12694130Q	424,44
16227440C	1.222,29
H01261056	600,00
12577149J	4.128,15
72748186Z	2.157,63
H01212935	600,00
H01135722	600,00
09527063A	636,27
09602121N	636,27
16198435H	2.318,75
	29719,77

NAN	UKATZEKO ARRAZOIA
16219279R	B.04 Diru-sarrerek arauan ezarritako mugak gainditzen dituzte
72711540F	B.04 Diru-sarrerek arauan ezarritako mugak gainditzen dituzte
12467242M	B.02 Onuradunak ez du jabetzarik egiaztatu edo ez da pertsona fisikoa
H01140219	A.10 Deialdia argitaratu aurretik hasitako jarduketa
72743340K	A.07 Ez du betetzen Eraikuntzaren Kodea

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.20 06:25:45 Z